

## 2024ko ORDENANTZA FISKALAK

### 1.04 ZERGA: ICIO

Tarifa eta karga tasa bakarra: %5

#### Salbuespenak

Gasaren instalakuntza-lanak, sare orokorretik etxe edo lokalaren sarrerara eramatekoak

Administrazio lagapen edo kontzesio erregimenean dauden garajeen estaldureko obrak.

Jabekideen elkarteek egindako eta diruz lagundutako obrak, traba arkitektonikoak igogailu baten bidez kentzeko

#### Hobariak

Gauza bat baino gehiagogatik jasotzeko aukera suertatuz gero, hobaririk handienaz bakarrik baliatu ahal izando da.

#### Ofizioz kalkulatuko dira

%95 Ezusteko edo ustekabeko gertaeren ondorioz eragindako kalteak konpontzeko egindako obrak: sutea, urakana, ekaitza, uholdea, leherketa. Banakatuta aurkeztu beharko da aurrekontua, halako gertaerekin lotutako obrei dagokien zatian.

%90 Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten obrak.

%50 Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatzei zuzenean lotutako etxebizitzetan egindako obrak, baita negutegiak eta nekazaritza-ekoizpenari atxikitako elementuak eraikitzeako obrak. Obraren jabeak alta emanda egon beharko du Gizarte Segurantzako nekazaritzako norberaren konturako langileen araubide berezian.

%95 Bizitegi-eraikin kolektiboetako elementu komunei eragiten dieten obrak, betiere eraikinari dagokion EITan obra horiek programatu badira berehalako, oso premiazako edo epe ertainean beharrezko jarduketara gisa (1, 2, 3 eta 4 mailak) eta ez mantentze lan arrunt gisa. Banakatuta aurkeztu beharko da aurrekontua, baldintza horiek betetzen dituzten obrei dagokien zatian.

%95 Hirigintza-ondarearen eta ondare eraikinaren birgaitze integraleko obrak Hiri Berroneratzeko Eremu (BIA) edo Bizitegi Eremu Degradatu (ARD) izendatutako udalerriko eremuetan egiten direnean – Galtzaraborda, Iztieta eta Gaztaño. Bai eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako auzoen birgaitze integraleko proiektuen esparruan egiten diren birgaitze integraleko obrak ere.

%50 Merkataritza edo lanbide-jardueratarako, zerbitzuetarako eta ostalaritza eta jatetxe-establezimenduetarako lokalak eraberritzeko edo moldatzeko obrak, betiere hiri-lurzoruan badaude.

%60 Fatxadak edota estalkiak erabat konpontzeko obrak, betiere energia-eraginkortasuna hobetzeko sistemak jartzen badira.

	<b>Eskaera egin behar da (lizentzia, aurretizko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean)</b>
%95	Interes bereziko edo udal onurakoak izendatuta daudenean, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak direlako izendapen hau mereziko dutenek. Izendapen hau Udalbatzak onartu beharko du.
%95	Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte. Dagokion araudiak sistema horiek nahitaez instalatzea eskatzen ez duten kasuetan. Eraikuntza, instalazio eta obrei dagokion zatiari aplikatuko zaio hobaria.
%95	Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomía Erkidegoa, Estatua edo toki-erakundeak jabe dituen edozein eraikuntza, instalazio edo obra, baldin eta Hezkuntza-erabilerarako edo edozein motatako ekipamendu publikorako badira. Hobaria jaso ahal izango dute, inbertsio berriko obrak izan zein kontserbaio-obrak izan.
%50	Azpiegituretan inbertsio pribatuak sustatzeko planekin lotuta dauden obrak, aldez aurretik udalak hala erabakita. Azpiegituretan sustapen pribatuko planei lotutako obra izendatuko dira uraren zikloan ingurumen-inpaktua murrizteko egiten direnak: ura berrerabiltzea errazten duten obrak eta hondakin-uren isurketa murrizten dutenak.
%50	Gipuzkoako Goru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatua edo toki-erakundeak jabe dituen edozein eraikuntza, instalazio edo obra, baldin eta bizitegi-erabilera babesturako izango badira. Hobaria jaso ahal izango dute, inbertsio berriko obrak izan zein kontserbaio-obrak izan.
%90	A etiketa energetikoa lortzeko birgaitze energetikoa helburu duten obrak
%75	B etiketa energetikoa lortzeko birgaitze energetikoa helburu duten obrak